Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 2a, osteguna — 81 — Jueves, a 2 de mayo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, hurrengo dirulaguntzak emateko deialdia onartu zuen:

*Euskara departamentuko dirulaguntzak 2019an emateko deialdia.*

Xedapen hauek ezartzen dituzte oinarri arautzaileak:

— Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 140 zk.).

— Euskara Departamentuko dirulaguntzak emateko 2019. urterako oinarri espezifikoak (2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran).

Zarautz, 2019ko apirilaren 25a.—Xabier Txurruka Fernández, alkatea. (2731)

1. Helburua.
2. Eskaerak.
3. Diru-laguntza emateko irizpideak.
4. Diru-zuzkidura eta aurrekontuko partida.
5. Ebazpena.
6. Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa.
7. Publizitatea.
8. Diruz laguntzeko gastuak.
9. Araudia.
10. Errekurtsoak.

*1. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da euskararekiko motibazioa, bera ikertzea, ezagutzea eta erabiltzea sustatzeko 2019. urtean egiten diren jarduerei norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzen eskaera eta emakida arautzea, beren etorkizunarengatik eta interesarengatik Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuaren programen helburuekin bat egiten dutenak, bereziki esparru hauekin lotutako proiektuen kasuan:

a) Erakundeek motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak.

Euskararen aldeko motibazioa helburu duten jarduerak eta programak.

b) Erakundeek euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak.

«Euskara» gai nagusi gisa dutenak: horien artean sartuko dira euskararen egoera jakinarazten duten jarduerak; euskara berreskuratzeko hitzaldiak, ikastaroak, plangintzari buruzko ekintzak, etab.

c) Euskararen erabilera sustatzea helburu duten erakundeen jarduerak eta programak.

Atal horretan bereiziko dira:

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 15 de abril de 2019, ha aprobado la siguiente convocatoria de subvenciones:

*Convocatoria para el otorgamiento de subvenciones del Departamento de Euskera para el año 2019.*

Disposiciones que establecen las bases reguladoras:

— Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Zarautz y sus Organismos Autónomos (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 140, de 22 de julio de 2008).

— Bases Específicas del otorgamiento de subvenciones del Departamento de Euskera. Bases específicas para el año 2019 (Pleno del 28 de marzo de 2019).

Zarautz, a 25 de abril de 2019.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernández. (2731)

1. Objeto.
2. Solicitudes.
3. Criterios de subvención.
4. Dotación y partida presupuestaria.
5. Resolución.
6. Justificación de la utilización de la subvención.
7. Publicidad.
8. Gastos subvencionables.
9. Normativa.
10. Recursos.

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la solicitud y concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a las asociaciones culturales o sociales sin ánimo de lucro para la realización de actividades, durante el año 2019, que impulsen la motivación al euskera, su investigación, conocimiento y uso, y que por su proyección e interés coincidan con los objetivos de los distintos programas del Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Zarautz, especialmente en el caso de proyectos relacionados con:

a) Actividades y programas, organizados por entidades, que fomenten la motivación.

Aquellas actividades y programas cuyo objetivo sea la motivación en favor del euskera.

b) Actividades, organizadas por entidades, que fomenten el conocimiento del euskera.

Las que tienen el «Euskera» como tema central: entre las que se incluirían las actividades que dan a conocer la situación del euskera; conferencias, cursillos, acciones sobre planificación, etc. para la recuperación del euskera.

c) Actividades y programas de entidades cuyo objetivo sea impulsar el uso del euskera.

En este apartado se distinguen:

— Euskararen erabileraren kantitatea azpimarratzen dutenak: jarduera bera euskaraz izatea, jarduerek berek euskara mintzatua eta idatzia sustatzea.

— Euskararen kalitatea bultzatzen dutenak: maila jasoko euskara, hizkuntza teknikoa, etab. sustatzeko.

d) Erakundeek edo pertsona fisikoek Zarautzekin eta Euskararekin lotuta antolatutako proiektuak.

Zarautzekin eta euskararekin lotutako programak.

Kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak espresuki diru-laguntzen emakidatik kanpo utziko dira.

Diruz laguntzeko jarduerak:

a) Euskarazko argitalpenak.

Irizpideak:

— Osorik euskaraz argitaratuak izatea.

— Besteren artean, Zarautz izatea bere hedapen-esparrua.

— Irabazi-asmorik gabea izatea.

— Udalaren beste diru-laguntza bat ez jasotzea.

b) Erakundeek antolatutako orotariko jarduerak.

Irizpideak:

— Euskararen erabileraren normalizazioa azpimarratzen duten erakundeak izatea.

— Urteko jarduerak eta programak euskaraz egitea. Gaztelaniaz egitekotan, beren helburua euskararen erabilera sustatzea izatea.

— Jarduera Zarautzen ere egitea.

— Irabazi-asmorik gabeak izatea.

— Udalaren beste diru-laguntza bat ez jasotzea.

c) Urteko proiektuak.

Irizpideak:

— Erakundeek urte osoko jarraitutasunarekin antolatutako jarduera egonkorrak.

— Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, esparru guztietan -eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko erakunde eta entitateetan- euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak.

— Herritar guztien partaidetzara irekita dauden jarduerak izatea.

— Osorik euskaraz izatea.

— Udalaren beste diru-laguntza bat ez jasotzea.

d) Ezohiko proiektuak eta jarduerak.

Irizpideak:

— Elkarteek eta taldeek antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.

— Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, esparru guztietan -eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko erakunde eta entitateetan- euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak.

— Herritar guztien partaidetzara irekita dauden jarduerak izatea.

— Osorik euskaraz izatea.

— Udalaren beste diru-laguntza bat ez jasotzea.

— Aquellas que inciden en la cantidad del uso del euskera: que la propia actividad sea en euskera, que las propias actividades potencien el euskera hablado/escrito.

— Aquellas que potencian la calidad del euskera: para promover el euskera de nivel superior, el lenguaje técnico.

d) Proyectos relacionados con Zarautz y el Euskera organizados por entidades o personas físicas.

Proyectos relacionados con Zarautz y el euskera.

Quedan expresamente excluidos de la concesión de subvenciones los programas y actividades que no sean realizadas directamente por las entidades culturales o sociales solicitantes.

Actividades subvencionables:

a) Publicaciones en euskera.

Criterios:

— Que se publiquen íntegramente en euskera.

— Que, entre otros, sea Zarautz su ámbito de difusión.

— Que carezcan de ánimo de lucro.

— Que no reciban otra subvención por parte del Ayuntamiento.

b) Actividades varias organizadas por entidades.

Criterios:

— Que sean entidades que incidan en la normalización del uso del euskera.

— Que realicen sus actividades y programas anuales en euskera. En el caso de que se realicen en castellano, que su objetivo sea potenciar el uso del euskera.

— Que la actividad se desarrolle también en Zarautz.

— Que carezcan de ánimo de lucro.

— Que no reciban otra subvención por parte del Ayuntamiento.

c) Proyectos anuales.

Criterios:

— Actividades estables organizadas por entidades con continuidad a lo largo de todo el año.

— Proyectos de normalización lingüística que faciliten el conocimiento, el uso y la divulgación del euskera en todos los ámbitos, especialmente en el seno de las organizaciones y entidades de los diversos sectores en que se organiza la actividad socioeconómica, social y cultural.

— Que sean actividades abiertas a la participación de toda la ciudadanía.

— Que sean íntegramente en euskera.

— Que no reciban otra subvención por parte del Ayuntamiento.

d) Proyectos y actividades extraordinarias.

Criterios:

— Proyectos y actividades extraordinarias organizados por asociaciones y grupos.

— Proyectos de normalización lingüística que faciliten el conocimiento, el uso y la divulgación del euskera en todos los ámbitos, especialmente en el seno de las organizaciones y entidades de los diversos sectores en que se organiza la actividad socioeconómica, social y cultural.

— Que sean actividades abiertas a la participación de toda la ciudadanía.

— Que sean íntegramente en euskera.

— Que no reciban otra subvención por parte del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2019-02731

2. *Eskaerak.*

Diru-laguntza horiek oinarri hauetan zehaztutako esparruan euskara normalizatzeko programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsonek eta erakundeek eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak ete beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Salbuespen gisa, zehazten den kasuetan eta Euskara zinegotziaren proposamenaz, Zarauztik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerriaren barruan garatzen bada edo udalerriarentzat interesgarri jotzen bada.

Dirulaguntzen onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan arautotako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

— 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.

— 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

— Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Irakaskuntza-zentroak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Pertsonen eskubideen aurkakoak edo iraingarriak diren edukiak dituzten jarduerak edo programak ez dira onartuko.

Inprimakiak (7.3A, 7.3B, 7.3D ereduak), osorik eta ongi beteta, udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira hilabeteko epean, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita:

— Udaletxea (HAZ – Herritarren Arreta Zerbitzua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara.

— Udal zerbitzu telematikoak.

Eskabidearekin batera, zehazki honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Elkarteko eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia.

Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

2. *Solicitudes.*

Podrán solicitar las citadas subvenciones las personas o entidades de carácter cultural o social, sin ánimo de lucro, legalmente constituidas e inscritas en los registros correspondientes, que dispongan del correspondiente NIF y que desarrollen su actividad principalmente en el ámbito del municipio de Zarautz.

Excepcionalmente, en los casos que así se determine a propuesta del Concejal/a de Euskera, podrán acceder a las ayudas las entidades radicadas fuera de Zarautz, cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Prohibición para beneficiarse de las subvenciones:

No se podrá beneficiar de las subvenciones reguladas en estas bases cualquier entidad que esté en alguna de las siguientes circunstancias:

— Alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

— Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

— Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el derecho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminada por razón de sexo (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

Quedan excluidos de la presente convocatoria los centros de enseñanza.

No se aceptarán aquellas actividades o programas que contengan contenidos ofensivos o contrarios a los derechos de las personas.

Los impresos (modelo 7.3A, 7.3B, 7.3D) debidamente cumplimentados en su totalidad deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la presenta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

— Casa Consistorial (SAC - Servicio de Atención al Ciudadano) en Kale Nagusia, 29 de lunes a viernes de 7:30 a 15:00 y los jueves de 7:30 a 15:00 y de 17:00 a 19:00.

— Servicios telemáticos municipales.

Junto a la solicitud, se tendrá que presentar la siguiente documentación:

— Copia de la escritura de constitución y estatutos de la entidad.

En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder del Ayuntamiento de Zarautz, quien solicite la subvención podrá acogerse a lo establecido en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

EK\CV GAO-I-2019-02731

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko dela, urriaren 1eko 39/2016 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Eskaerek Euskara Departamentuaren Oinarri Berezietan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

3. *Dirulaguntza emateko irizpideak.*

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera (7.3A inprimaki eredua) doan memoria labur batean egiaztatu beharko dira:

— Elkartearen ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna, bazkide-kopurua etabar.

— Burutu beharreko programa edo jarduera.

— Programaren edo jardueraren bideragarritasun ekonomikoa.

— Elkartearen finantza-baliabideak.

— Oinarri hauetan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3D inprimaki eredua), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

— Oinarri hauetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredua), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

— Oinarri hauetan, Ingurumenari buruzko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredua), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

— Oinarri hauetan, ekainaren 25eko 18/1998 Legeak, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak, ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredua), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

— Elkartearen ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna: puntu 1 /urteko; gehienez 20 puntu.

— Burutu beharreko programa edo jardueraren kalitatea eta interesa euskararen normalizazioaren ikuspegitik: gehienez 30 puntu.

— Bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak (gehienez 10 puntu).

— Aurkeztutako programaren gizarte-eragina, jarduerak irekiak eta herritar guztiei zuzenduak izatea, parte-hartzaile kopurua (10 punturaino).

— Beste erakunde, herritar eta gainerako gizarte-eragileen inplikazio-maila eta ekimen berritzailea izatea (10 punturaino).

— Elkartea Zarauzkoa izatea (10 punturaino).

— Dirulaguntza jasotzen duten elkarteen ardura-postuetan eta erabakitzeko organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

Si la solicitud o la documentación aportada contiene errores o está incompleta, se requerirá al interesado-a para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, de acuerdo al artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las solicitudes deberán cumplir las condiciones detalladas en las bases específicas del Departamento de Euskera.

3. *Criterios de subvención.*

En la adjudicación de subvenciones se valorarán los siguientes aspectos, que deberán ser acreditados en una breve memoria junto a la solicitud (impreso modelo 7.3A):

— La trayectoria, continuidad y estabilidad demostrada por la entidad solicitante, número de socios y socias, etc.

— Programa o actividad/es a realizar.

— Viabilidad económica del programa o actividad.

— Recursos financieros de la entidad.

— Cumplimiento de las obligaciones establecidas obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa municipal para la normalización del uso del euskara (impreso modelo 7. 3D), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

— Cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad entre mujeres y hombres (impreso modelo 7.3B), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

— Cumplimiento de lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa Municipal de Medio Ambiente (impreso modelo 7.3B), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

— Cumplimiento de lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias (impreso modelo 7.3B), e indicación, en su caso, de las medidas suplementarias establecidas al respecto.

Se seleccionarán los proyectos que serán aprobados teniendo en cuenta los siguientes criterios y los límites de valoración (hasta un máximo de 100 puntos). Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionados:

— La trayectoria, la continuidad y la estabilidad demostrada por la entidad solicitante: 1 punto/año; máximo 20 puntos.

— La calidad e interés del proyecto o actividad desde el punto de vista de la normalización del euskara (hasta 30 puntos).

— Viabilidad económica y recursos financieros (hasta 10 puntos).

— El grado de incidencia social del programa presentado y que las actividades sean abiertas y estén dirigidas a todos los ciudadanos (hasta 10 puntos).

— El grado de implicación de otras instituciones, entidades, ciudadanos y demás agentes sociales, y el carácter innovador (hasta 10 puntos).

— Que el grupo, asociación u organismo sea de Zarautz (10 puntos).

— Que, en los puestos de responsabilidad y los órganos de decisión de la entidad subvencionada, la participación de las mujeres sea como mínimo un 40 %: 5 puntos; si no se cumple: 0 puntos.

— Dirulaguntza jasotzen duten elkarteen osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

*4. Gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak.*

Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

a) Erakundeek motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

b) Erakundeek euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

c) Euskararen erabilera sustatzea helburu duten erakundeen jarduerak eta programak.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

d) Erakundeek edo pertsona fisikoek Zarautzekin eta Euskararekin lotuta antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

Diru-laguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da, beraz, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera modu egokian prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

*5. Diru-zuzkidura eta aurrekontuko partida.*

Diru-laguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehienezko kopuru hau izango du:

Euskara normalizatzeko proiektuak sustatzeko laguntzak.

— Partida: 0701.481.01.335.00 2019 04319.

Euskara sustatzeko diru-laguntza 5.000,00 €.

*6. Ebazpena.*

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da, eta administrazio-bidea amaituko du.

Organo eskudunak.

— Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.

— Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio Batzordeko kideak osatutakoa.

— Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da, prozeduran interesatuek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzen badira edo kontuan hartzen badira izan ezik.

— Que en la entidad subvencionada la participación de las mujeres sea de al menos un 40 %: 5 puntos; si no se cumple: 0 puntos.

*4. Conceptos e importes máximos.*

Los conceptos e importes máximos que se podrán conceder en cada una de las convocatorias son los que se detallan a continuación:

a) Actividades y programas, organizados por entidades, que fomenten la motivación.

El importe de la subvención propuesto no superará el 75 % del presupuesto de gasto del programa.

b) Actividades, organizadas por entidades, que fomenten el conocimiento del euskera.

El importe de la subvención propuesto no superará el 75 % del presupuesto de gasto del programa.

c) Actividades y programas de entidades cuyo objetivo sea impulsar el uso del euskera.

El importe de la subvención propuesto no superará el 75 % del presupuesto de gasto del programa.

d) Proyectos y actividades extraordinarias relacionadas con Zarautz y el Euskera organizados por entidades o personas físicas.

El importe de la subvención propuesto no superará el 75 % del presupuesto de gasto del programa.

La concesión de subvenciones se hará como máximo hasta el límite de las consignaciones presupuestarias de la partida correspondiente. Si la cantidad a abonar resulta superior a la consignación realizada, se prorratearán las cantidades proporcionalmente entre todos-as los-las solicitantes.

Con carácter excepcional, los gastos de garantía bancaria podrán ser subvencionados si son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la actividad subvencionada, quedando a criterio de la Comisión de Valoración su aceptación.

*5. Dotación y partida presupuestaria.*

Las subvenciones se podrán solicitar en base a los siguientes apartados, a los que se destinarán las siguientes cuantías máximas:

Actividades que impulsan la normalización del euskera.

— Partida: 1 0701.481.335.00 2019 04319.

Subvenciones para fomentar el uso del euskera 5.000,00 €.

*6. Resolución.*

La resolución se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zarautz, y pondrá fin a la vía administrativa.

Órganos competentes.

— Ordenación e instrucción (Órgano Instructor): El Responsable del Departamento de Euskera.

— Examen y valoración (Comisión de Valoración): Un órgano colegiado integrado por los miembros componentes de la Comisión Informativa de Ciudadanía.

— Resolución (Órgano Competente): Corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

Instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, se evacuará el trámite de audiencia previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de 2015, salvo que no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados.

EK\CV GAO-I-2019-02731

Eskariak ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako esan-bidezko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bideratzea egingo da lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Udalak emandako diru-laguntzen argitalpena egingo du 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

*7. Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.*

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Euskara Departamentuaren Oinarri Berezietan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du, ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

— Justifikazio-kontua.

* Gastuaren frogagiriak ekarrita.

* Ikuskariaren txostena ekarrita.

* Erraztua.

— Moduluka egiaztatzea.

— Kontabilitate-egoerak aurkeztea.

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du barne:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

Proiektu edo jardueraren izena.

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

a) Gauzatutako jardueren zehazpena: datak, jarduerak, tokiak.

— Diruz lagundutako jardueren deskripzio zehatza eta edukia.

— Lortutako helburuak.

— Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskripzio zehatza.

— Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentajetan).

— Emaitzen ebaluazioa.

— Beste alderdi batzuk.

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria. Jarduera-memoriak elkarteak balorazio-irizpideak betetzeko hartzen diren neurriak zerrendatuko ditu.

b) Euskararen erabilera errealari buruzko 7.3E inprimaki Eredua betetzea, eta hala badagokio, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.

c) Hala badagokio, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de 3 meses desde la finalización del plazo de recepción de las mismas, considerándose éstas desestimadas si no recayera resolución expresa a dicha fecha.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en los artículos 42 y 44 de la citada ley.

El Ayuntamiento procederá a la publicación de las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

*7. Justificación de la utilización de la subvención.*

La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zarautz y en las Bases Específicas del Departamento de Euskera y deberá presentarse antes del 31 de enero de 2020.

La justificación por el beneficiario del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención, podrá revestir una o las dos de las siguientes modalidades:

— Cuenta justificativa.

* Con aportación de justificantes de gasto.

* Con aportación de informe auditor.

* Simplificada.

— Acreditación por módulo.

— Presentación de estados contables.

La cuenta justificativa simplificada contendrá la siguiente información:

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Esta memoria contará como mínimo con los siguientes apartados:

Denominación del proyecto o actividad.

Descripción de la actividad realizada:

a) Indicación de las actividades realizadas: fecha, actividad, lugar.

— Descripción detallada y contenidos de las actividades desarrolladas del proyecto subvencionado.

— Objetivos conseguidos.

— Descripción detallada de las medidas adoptadas para incluir la perspectiva de género.

— N.º de participantes desglosados por sexo (número absoluto o porcentaje).

— Evaluación de resultados.

— Otros aspectos.

La memoria justificativa para acreditar que se han cumplido los criterios de valoración de la subvención. La memoria justificativa enumerará las medidas que toma la entidad para cumplir los criterios de igualdad.

b) Completar el impreso 7.3E sobre el uso real del euskera, e indicar, en su caso, de las medidas suplementarias a lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa municipal para la normalización del uso del euskara.

c) Indicación, en su caso, de las medidas suplementarias a lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad entre mujeres y hombres.

d) Hala badagokio, Ingurumenari buruzko Udal Araudiari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.

e) Hala badagokio, 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.

f) Diruz-lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafikoa eta idatzita: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea.

2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituena:

a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren erantzukizunpeko adierazpen bat, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (erabili 7.3F inprimaki eredua).

b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko, dagozkion transferentzien agiriekin edo aurkeztuko da dirulaguntza kobratuko den kontu-korronte/euskarriko mugimendu guztien xehetasuna, hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdian egindakoa.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (erabili 7.3F inprimaki eredua).

Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diruz laguntzeko gastuak, lagundutako jardueren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten dioten horiek, eta diru-laguntzen berariazko deialdiak ezarritako epean egiten diren horiek dira.

Zehazki, gastu hauek izango dira diruz laguntzekoak:

— Diruz lagundutako jarduerak antolatu eta gauzatzeko gastuak:

— Materialen, produktuen edo zerbitzuen hornikuntza/alokairua, enpresa osagarrien kontratazioa.

— Komunikazio grafikoa: WEB orria, ikus-entzunezkoak, paperezko argitalpenak.

— Lehiaketako sariak edo/eta jardueren parte-hartzaileen dietak.

— Elkartekideei eskainitako urteko bazkaria.

— Soldaten eta zerbitzu profesionalen ordainketa.

— Kolaboratzaileei eskainitako opari edo eskupekoak.

— Elkartearen administrazioa eta kudeaketa. Elkarteen edo federazioen kuotak.

— Azpiegiturak: ordenagailua, telefonoa, internet.

— Mantenu gastuak: garbiketa, argindarra, berogailua, ur hornidura eta zergak eta aseguruak.

Era berean, moduluen bidez justifikatu ahal izango dira zenbait gastu. Gastu-motak eta modulu horien zenbatekoak ondorengoak izango dira:

— Joan-etorriak: 0,29 €/Km.

— Bazkariak edo afariak: 21,00 €/jankideko.

d) Indicación, en su caso, de las medidas suplementarias a lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente a la Normativa Municipal de Medio Ambiente.

e) Indicación, en su caso, de las medidas suplementarias a lo establecido obligatoriamente en estas bases en lo referente la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias.

f) Materiales gráficos y escritos utilizados para el desarrollo de la actividad subvencionada: programas, carteles, anuncios, publicidad.

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una declaración responsable del abono de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación de la persona o entidad acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas (utilizar impreso modelo 7.3F).

b) Los justificantes de gasto o documentos de valor probatorio equivalente o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior que permitan acreditar el cumplimiento del objeto de la subvención pública, con los correspondientes justificantes de las transferencias o el detalle de todos los movimientos de la cuenta corriente-soporte en la que se cobre la subvención, correspondiente al periodo subvencionado.

c) Una declaración responsable, firmada por el/la Tesorero/a de la asociación, de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia (utilizar impreso modelo 7.3F).

En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de las actividades subvencionadas, y se realicen en el plazo establecido en esta convocatoria.

Concretamente serán subvencionables los siguientes gastos:

Gastos de organización y realización de las actividades objeto de subvención:

— Suministros y/o alquiler de materiales, productos o servicios, contratación empresas auxiliares.

— Comunicación gráfica: Página WEB, elementos audiovisuales, publicaciones en papel.

— Premios de concursos y/o dietas de los participantes en actividades.

— Comida anual ofrecida a los miembros de las asociaciones.

— Salarios y abono servicios profesionales.

— Gratificaciones o regalos ofrecidos a colaboradores.

— Administración y gestión de la asociación. Cuotas de asociaciones o federaciones.

— Infraestructuras: ordenador, teléfono, internet.

— Gastos de mantenimiento: limpieza, electricidad, calefacción, agua e impuestos y seguros.

Asimismo, se establece la posibilidad de justificar unos gastos por medio de módulos. El tipo de gastos y los importes de dichos módulos serán los siguientes:

— Desplazamientos: 0,29 €/Km.

— Comidas o cenas: 21,00 €/comensal.

EK\CV GAO-I-2019-02731

Gastu hauek onartuak izateko behar bezala justifikatu, baliozkotu eta baimendu behar ditu pertsona edo erakunde onuradunak, eta diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena eduki beharko dute. Balorazio batzordeak erabakiko du azkenean ea kasu bakoitzean honelako gastuak egitea onartzen duen.

8. *Publizitatea.*

Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein neurri hartu behar diren programa edo jarduerak jasotako finantzazio publikoaren berri emateko, eta kasu bakoitzean zehaztuko ditu zein izango diren euskarriak, kopurua, publizitate agerraldiaren tamaina edo forma.

9. *Diruz laguntzeko gastuak.*

Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein gastu izango diren diruz laguntzekoak.

10. *Araudia.*

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea eta Euskara Departamentuaren oinarri bereziak, biak ere 2008ko maiatzaren 7ko udalbatzarrean hasierako onespena jasotakoak. (2008ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

11. *Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

1. ERANSKINA

*Zarauzko Udalak diru-laguntzak justifikatzeko dokumentu baimenduen zerrenda.*

— Nominak.

— Gizarte Segurantzako TC-1 edota TC-2 dokumentuak.

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenari buruzko atxikipenen aitorpenaren 110 eta 111 dokumentuak.

— Finantza-erakundeek egindako Banku-zorpetzeko karguen ziurtagiri edo dokumentuak, faktura baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.

— Faktura.

— Autofaktura (hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).

— «Jaso dut» dokumentua (derrigor hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).

— Tiketak* (gastuen kontzeptu-multzotan bildu ahal izango dira).

— »Jaso dut» dokumentua hirugarren interesatuak sinatuta eta erakunde ordaintzaileko diruzainak egindako ziurtagiria, hartzailea, kontzeptua eta ordaindutako zenbatekoa adierazita.

Estos gastos deberán ser debidamente justificados, validados y autorizados por la persona o entidad beneficiaria para su aceptación y deberán estar directamente relacionados con la actividad subvencionada. La Comisión de Valoración decidirá finalmente si acepta la realización de este tipo de gastos en cada caso.

8. *Publicidad.*

El Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Zarautz concretará en cada caso las medidas a adoptar para dar cuenta del carácter público de la financiación del programa o actividad, especificando en cada caso, en qué soportes, el número, tamaño o forma de la inserción publicitaria.

9. *Gastos subvencionables.*

El Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Zarautz concretará en cada caso qué gastos serán considerados gastos subvencionables.

10. *Normativa.*

En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* 25 de julio), la Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zarautz y las bases específicas del Servicio de Euskera aprobados ambos inicialmente en el Pleno del 7 de mayo de 2008 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 20 de mayo de 2008).

11. *Recursos.*

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.

ANEXO 1

*Relación de documentos autorizados por el Ayuntamiento de Zarautz en la justificación de subvenciones.*

— Nóminas.

— Documentos TC-1 y/o TC-2 de la Seguridad Social.

— Documentos 110 y 111 de declaración de retenciones relativas al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

— Certificaciones o documentos de cargo por adeudamiento bancario que, expedidos por entidades financieras, contienen los datos propios de una factura, a excepción del número y serie.

— Factura.

— Autofactura (deberá acompañarse copia del correspondiente movimiento bancario que acredite su cobro por el/la tercero/a interesado/a o, en su defecto, copia de cualquier otro documento equivalente).

— »Recibí» firmado por el/la tercero/a interesado/a (deberá acompañarse necesariamente una copia del correspondiente movimiento bancario que acredite su cobro por parte del tercero/a interesado/a o, en su defecto, copia de cualquier otro documento equivalente).

— Tickets* (podrán agruparse por conceptos de gastos).

— »Recibí» firmado por el/la tercero/a interesado/a tercero interesado/a y certificado expedido por el/la tesorero/a de la entidad pagadora donde se especifique el receptor, el concepto así como el importe abonado.

EK\CV GAO-I-2019-02731

— Beste batzuk (zehaztu).

* Ziurtagiri hauek baliozkoak izango dira, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuan, eta bertan arautzen diren baldintzetan ezarritakoari jarraiki (ikus honekin batera doan xehetasuna).

Fakturak ordezkatzeko dokumentuak (tiketak).

Faktura egiteko betebeharra jarraian deskribatuko diren eragiketetan tiketa eginda bete ahal izango da, horien zenbatekoak 3.000 euro gainditzen ez dituenean, balio erantsiaren gaineko zerga barne:

a) Txikizkako salmentak, entregatutako produktuen fabrikatzaile edo ekoizleek egindakoak barne.

b) Eragin horietarako, txikizkako salmentak izango dira ondasun higigarri edo azienden entregak, non eragiketaren hartzaileak ez duen enpresari edo profesional gisa jarduten, baizik ondasun horien azken kontsumitzaile gisa. Beren ezaugarri objektibo, bilgarri, aurkezpen edo kontserbazio-egoerarengatik nagusiki enpresa- edo lanbide-erabilerakoak diren salmentak ez dira txikizkako salmentatzat hartuko.

c) Anbulantziako salmentak edo zerbitzuak.

d) Kontsumitzailearen etxerako salmentak edo zerbitzuak.

e) Pertsonen eta beren ekipajeen garraioak.

f) Jatetxe, taberna, kafetegi, ortxategi, txokolategi, eta antzeko dendek eskainitako zerbitzuak, eta unean kontsumitzeko edari edo janarien hornidura.

g) Dantza-areto eta dantzalekuek eskainitako zerbitzuak.

h) Erabilera publikoko telefono-kabinen bidez, eta eramailea identifikatzeko aukera ematen ez duten txartelen bidez eskainitako telefono-zerbitzuak.

i) Ile-apaindegiek eta apaindegiek eskainitako zerbitzuak.

j) Kirol-instalazioak erabiltzea.

k) Argazkiak errebelatzea eta argazki-estudioek eskainitako zerbitzuak.

l) Aparkalekuak eta ibilgailuak aparkatzea.

m) Filmak alokatzea.

n) Garbitegien eta tindategien zerbitzuak.

o) Ogasuneko Zuzendari Nagusiak enpresa- edo lanbide-sektoreekin edo enpresa zehatzekin lotuta baimentzen dituenak, enpresa edo lanbide-jardueren garapenean asalduak saihesteko.

*Oharra:* Tiket batek barne hartu behar dituen datuak ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude.

— Otros (especificar).

* Estos justificantes serán válidos de acuerdo a lo establecido en el artículo 4 del Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación y en las condiciones que se regulan en el mismo (ver detalle adjunto).

Documentos sustitutivos de las facturas (tickets).

La obligación de expedir factura podrá ser cumplida mediante la expedición de tique en las operaciones que se describen a continuación, cuando su importe no exceda de 3.000 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido incluido:

a) Ventas al por menor, incluso las realizadas por fabricantes o elaboradores de los productos entregados.

b) A estos efectos, tendrán la consideración de ventas al por menor las entregas de bienes muebles corporales o semovientes en las que el destinatario de la operación no actúe como empresario o profesional, sino como consumidor final de aquéllos. No se reputarán ventas al por menor las que tengan por objeto bienes que por sus características objetivas, envasado, presentación o estado de conservación sean principalmente de utilización empresarial o profesional.

c) Ventas o servicios en ambulancia.

d) Ventas o servicios a domicilio del consumidor.

e) Transportes de personas y sus equipajes.

f) Servicios de hostelería y restauración prestados por restaurantes, bares, cafeterías, horchaterías, chocolaterías y establecimientos similares, así como el suministro de bebidas o comidas para consumir en el acto.

g) Servicios prestados por salas de baile y discotecas.

h) Servicios telefónicos prestados mediante la utilización de cabinas telefónicas de uso público, así como mediante tarjetas que no permitan la identificación del portador.

i) Servicios de peluquería y los prestados por institutos de belleza.

j) Utilización de instalaciones deportivas.

k) Revelado de fotografías y servicios prestados por estudios fotográficos.

l) Aparcamiento y estacionamiento de vehículos.

m) Alquiler de películas.

n) Servicios de tintorería y lavandería.

o) Las que autorice el Director General de Hacienda en relación con sectores empresariales o profesionales o empresas determinadas, con el fin de evitar perturbaciones en el desarrollo de las actividades empresariales o profesionales.

*Nota:* Los datos que tiene que contener un ticket están detallados en el artículo 7 del Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio.

EK\CV GAO-I-2019-02731